

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Gizarte zerbitzuen eremuko elkarte edo fundazioentzako laguntza deialdia, haiek mantentzen laguntzeko**

2020ko ekitaldia

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2020ko ekainaren 4an egindako bilkuran, laguntza deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdia arautuko duten:

#### OINARRIAK

##### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea eta araudi aplikagarria**

Deialdiaren xedea da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte zerbitzuen eremuko elkarteei edo fundazioei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea, GOFEn esparruko elkarte eta fundaziook mantentzen laguntzeko, 2020ko ekitaldian.

Deialdi honen xede diren laguntzak emateko, kontuan edukiko da ea betetzen diren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuan eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak. Foru dekretu horren bidez, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta haren erakunde autonomo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren.

##### **Bigarrena. Deialdiaren aurrekontua**

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak aurrekontu partida honen kredituari egotziko zaizkio: 1.8024.0421.481.00.04 "Elkarteen funtzionamendu gastuetarako laguntza programa" Partida hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2020ko aurrekontuan jasota dago, eta deialdi honetarako 288.000,00 euroz hornituta.

##### **Hirugarrena. Erakunde onuradunak**

3.1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak edo fundazioak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta beren jarduerak deialdiaren xedearekin bat etortzen badira eta jarduera horiek deialdiak eta araudi hauek ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomo den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak.

3.2. Honako hauek deialditik kanpo geldituko dira berariaz:

a) Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpe dauden erakundeak, zentroak edo zerbitzuak, bai eta aurrezki kutxen edo irabazteko asmoa duten erakundearen menpe daudenak ere.

b) AFAn beste sail edo zuzendaritza batzuekin nahiz beste erakunde publiko batzuekin zerikusia duten beste eremu edo talde batzuei atxikitako jarduerak edo programak dituzten erakundeak.

c) Beren jarduera Gasteizko udalerrira mugatzen duten elkarte edo erakundeak.

d) Aurreko ekitaldietan erreklamatu zitzaizkien dirulaguntzak itzuli ez dituzten erakundeak.

e) Eskatutako laguntzarekin egin beharreko jarduerak Arabako Lurralde Historikoaren barruan egiten ez dituzten entitate edo erakundeak.

f) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, hezkuntza erakundeak, sozietate zibilak, sindikatuak edo merkatari eta profesionalen elkarteak, oro har, bai eta horietan sartuta edo horiei atxikita dauden talde eta elkarteak ere, baldin eta beren plazen ehuneko 75 baino gehiago erakunde jakin bateko kideentzat, enplegatuentzat edo senitartekoentzat gordeta badauzkate edo kide izateko aukera mugatzen dutenak badira.

g) Eskaera aurkezterakoan Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta ez dauden elkarteak edo fundazioak. Aipatutako erregistroa araututa dago Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 23ko 25/1999 Foru Dekretuan, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoaren Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortzen den eta haren antolaketa eta funtzionamendu arauak ezartzen baitira.

h) Kideak onartzeko prozeduran edo jardunbidean, sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo fundazioak, eta, sexuan oinarritutako diskriminazioa egin dutelako, administrazio bidean edo zigor bidean zehapena izan duten elkarteak edo fundazioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeari jarraikiz debeku hori ezarri zaienak ere.

i) Erakunde publikoak barruan dituzten elkarteak edo fundazioak.

j) Araban egoitzarik ez duten elkarteak edo fundazioak.

k) Deialdi honen helburua betetzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzaz hitzarmena duten edo erakunde horrengandik dirulaguntza izendunen bat jasotzen duten erakundeak.

#### **Laugarrena. Deialdiaren xedea eta diruz lagungarriak diren jarduerak**

4.1 Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen jarduketan zehaztutako helburuak betetzeko dirulaguntzak ezartzen dira laguntza eman nahian, betiere gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeen mantentze lanari eta langileei dagokienez.

4.2 Diruz lagundu ahalko dira honako kontzeptu hauek:

a) Mantentze gastuak:

1. Alokairuak, komunitate gastuak eta toki zergak eta tributuoak.

2. Hornigaiak: Ura, argindarra, gasa eta telefonoa/datuak.

3. Lokalaren aseguruak.

4. Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk:

– Bulegoko material suntsikorra, fotokopiak eta posta.

– Garbiketarako kanpo zerbitzuen gastuak eta garbiketara materiala.

– Lan eta ekonomia aholkularitza.

– Ekipoak mantentzeko lana (informatikoak, fotokopiagailua, su itzalgailuak, galdara, alar-mak, zerbitzaria eta web domeinua).

– Lan arriskuak prebenitzeko plana, datuen babesa, kalitate planak.

– Erakundearen aseguruak (erantzukizun zibila, istripuak eta boluntarioak).

– Federazioen kuotak.

– Federazioekin bilerak egiteko joan-etorrien gastuak (garraioa eta otorduak).

– Konponketa txikiak.

b) Erakunde eskatzailearen langile gastuak.

#### 4.3. Kanpoan utziko dira:

- Finantza gastuak (mailegu interesak, komisioak eta beherapenak), hirugarrenei egindako diru dohaintzak.
- Arabako landa zonako erakunde publikoen lokalak mantentzeko gastuak.
- Honakoen ondorioz sortutako gastuak: altzariak, ekipamendua, inbentarioan sartzeko moduko ondasunak, berrikuntza lanak, inbertsioak, ospakizun gastronomikoak, ordezkariak gastuak, opari gastuak, loteria, ibilgailu gastuak eta abar.
- 4.2 oinarrian jasota dauden gastuetatik, erakunde eskatzaileak Administrazioarekin dituen hitzarmen, kontratu edo bestelako lankidetzaren moten aurrekontuetan sartzen direnak.
- Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.

4.4 Gastu horiek diruz lagundu eta, hortaz, deialdi honen bidez finantzatu ahal izango dira, baldin eta diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren izaerari inolako zalantzarik gabe atxikitzen bazaizkio, behar-beharrezkoak badira eta 2020ko ekitaldian egiten badira.

4.5 Dirulaguntzarako onartzen den aurrekontuaren ehuneko 100 azpikontratatu daiteke, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira. 27.7.d) artikuluan xedatutakoaren arabera loturarik badago, baimena eskatu behar da azpikontratatzeko, organo emaileari zuzendutako idazki bidez. Deialdi hau argitaratu aurretik azpikontratatu bada, onartu egingo da baimen eskaera laguntza eskaerarekin batera aurkeztea. Horrek, ordea, ez du zehazten erantzuna halakoa edo bestelakoa izango den.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

5.1. Araitutako eredu erabili behar da deialdi honetako laguntzetarako eskaerak betetzeko. Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen dago eskuragarri, helbide honetan: San Prudentzio kalea, 30, 1.a – Gasteiz. Halaber, erakunde honek modu telematikoa eman diezazkieke eredu horiek hala eskatzen duten erakundeei, eta esteka honetatik ere deskargatu ahal izango dira: [www.araba.eus/ifbs](http://www.araba.eus/ifbs) (Erakundeak erlaitza> Laguntzak eta dirulaguntzak bannerra).

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizartegintza Arloak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie, deialdi honen esparruan, dirulaguntzaren bat eskatu nahi duten erakundeei. Kontsultak bide hauek erabiliz egin daitezke:

San Prudentzio kalea, 30, sotoa

Telefonoa: 945 15 10 15

Faxa: 945 12 10 74

Edo posta elektronikoko helbide hauetan: [mdomingo@araba.eus](mailto:mdomingo@araba.eus), [lfbsayudasins@araba.eus](mailto:lfbsayudasins@araba.eus).

5.2. Eskaerarekin batera, araudi honetan eskatutako agiriak ere aurkeztuko dira, aurreko paragrafoan adierazitako lekuan. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak azken xedapenetatik zazpigarrenean araututakoarekin bat etorritik, 16. artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak. Eskaerarekin batera, dirulaguntzetarako eskatzen diren agiriak (jatorrizkoak) aurkeztu behar dira.

5.3 Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza eskaera hori eta erantsitako dokumentazioa. Halaber, laguntza eskaeraren ondoriozko jarduketan eta prozedura guztian zehar, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak 6.1 artikuluan xedatzen duen bezalaxe.

**Seigarrena. Aurkezteko epea**

6.1 Laguntza eskaerak aurkezteko, 15 egun baliodun izango dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.2. Epe barruan aurkeztutako eskaerak ebatzi ondoren, eta aurrekontuetan horretarako nahikoa kreditu badago, salbuespen gisa, 6.1 paragrafoak adierazitako epetik kanpo ere onartuko dira eskaerak, baina, inola ere ez, 2020ko azaroaren 30a baino geroago. Horrelakoetan, eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epe arruntaren azken eguna igaro ondoren sortu direla egiaztatu beharko da, eta eskaerak indarrean dagoen arautegiaren arabera justifikatzeko arrazoi frogatuak daudela.

**Zazpigarrena. Aurkeztu beharreko agiriak**

7.1. Bosgarren oinarrian aipatzen den eskaera orria, erakundearen ordezkariak edo erakundearen horretarako ahalmen nahikoa duenak sinatua, besteak beste, ondoko datu hauek jasotzen dituena:

- Eskatzailea, jarduerak eta eskatutako kopuruak.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa.
- Eskaera sinatzen duenaren ordezkatzeko ahalmenaren egiaztagiria eta organo eskudunaren ziurtagiria eskaera baimenduz.
- Elkartearen edo fundazioaren izena eta datuak. Erakundearen legezko eratze data. Zuzendaritza Batzordearen edo patronatuaren eraketa eta bazkide, boluntario eta abarren kopurua, sexuka zehaztuta, bai eta bazkide kuota ere, Euskadiko Elkarteen 7/2007 Legeak 23. artikuluan ezarritako bazkideen liburu erregistroaren arabera.
- Diruz lagungarria den kontzeptu bakoitzaren aurrekontua eta eskatutako zenbatekoa, hamaikagarren oinarriko B apartatuaren arabera.
- Helburu bera betetzea xede duten beste sarrera edo dirulaguntza batzuk.
- Kontratututako langileentzako dirulaguntza eskaerarako: eskatutako langileen zerrenda, adierazita: lanpostua, ordainsaria eta dedikazioa, eskaerarekin batera doan ereduaren arabera beteta.

7.2. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. 7.d) artikulua aplikatuz, azpikontratazioan lotura egonez gero: baimen eskaera, jarduerak lotutako pertsonekin edo erakundeekin azpikontratatzeko.

7.3. Elkartearen edo fundazioaren memoria teknikoa. Memoria horretan honako hauek zehaztuko dira:

- Gizarte beharrei elkarteak edo fundazioak dakarkien onura egiaztatzea.
- Erakundearen helburuak, jarduerak eta metodologia.
- Jarraipena eta ebaluazio adierazleak.
- Materialak, giza eta teknologia baliabideak,...
- Araban duen ezarpen maila.
- Boluntarioen partaidetza.
- Herritarrei zuzendutako artapena.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak.

7.4. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak: Dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek egunean ordainduta izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari ziurtagiria, eskaera egiten duen erakundea Gizarte Segurantzarekiko betebeharratan egunean dagoela egiaztatzeko, bai eta foru ogasunari ere, zerga betebeharratan egunean dagoela egiaztatzeko; behar adina aldiz egin ahal izango die eskaera GOFEk aipaturako erakundeek, salbu eta, dirulaguntza 800,00 euro baino txikiagoa izanik, erakundeak hori egiaztatzeko betebeharratik salbuetsita dauden kasuetan, betiere 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera, eta aurkeztu ere eskatzen zaion beste bider.

7.5. BEZetik salbuetsita egotea: 15.4 oinarriari dagokionez, BEZaren salbuespena egiaztatuko da zerga administrazio eskudunak eman beharreko salbuespen egiaztapen bidez, baldin eta alde aurretik dagoeneko aurkeztu ez bada. GOFEk dagokion zerga administrazioan egiaztatuko du salbueste hori badela. Bestela, salbuespena erantzukizunpeko adierazpen bidez ere egiaztatu ahal da, betiere honakoa adieraziz: erakunde eskatzaileak ez duela irabazi asmorik, lortutako etekinak salbuestitako jarduerak aurrera eramateko erabiltzen direla eta lehendakari, elkar-teburu edo ordezkariaren karguak doakoak eta ordainik gabekoak direla. Eskaera aurkezteak GOFeri baimena ematen dio adierazpen hori egiaztatzeko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan. Erakunde eskatzailea aurreko agiriak direla-eta GOFEk egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera.

#### Zortzigarrena. Balioespen irizpideak

8.1. Hona hemen laguntzak emateko erabiliko diren balioespen irizpide nagusiak:

a) Elkar-teak edo fundazioak aurrera eramaten duen esku hartzearen egokitzapen eta kalitate teknikoa: gehienez ere 50 puntu. Balioetsiko da erakundearen mantentzea gizarte beharrezkoen arabera dela justifikatzea, bai eta esku hartzearen diseinua eta gauzatzeko proposamena ere (helburuak, ekintzak, metodologia, jarraipena, ebaluazioa eta erabilitako baliabideak).

a.1. Justifikazioa, elkar-teak edo fundazioak GOFeren xede diren gizarte beharrei egiten dien ekarpenari buruzkoa: gehienez, 25 puntu.

Behar bezala justifikatzen du	25 puntu
Hein batean justifikatzen du	15 puntu
Ez du justifikatzen	0 puntu

Diruz laguntzeko modukoa izateko, jarduerak 15 puntu izan behar ditu gutxienez a.1 apartatuan.

a.2. Erakundearen helburuak, jarduerak eta metodologia: gehienez, 15 puntu.

Gizarte beharrei egokitzen zaizkien helburuak zehazten ditu	5
Helburuak betetzeko ekintza zehatzak deskribatzen ditu	5
Helburuekin bat datorren metodologia proposatzen du	5

a.3. Erakundearen jardueraren jarraipen eta ebaluazio prozesua: gehienez ere 5 puntu.

Jarraipena egiteko era eta ebaluazio adierazle egokiak proposatzen ditu	5 puntu
Jarraipena egiteko era eta ebaluazio adierazle desegokiak proposatzen ditu	0 puntu

a.4. Materialak, giza baliabideak, bitarteko teknologikoak...: gehienez ere, 5 puntu.

Zehaztutako materialak, baliabideak eta ekipamendua egokiak dira	5 puntu
Material eta/edo baliabide desegokiak azaltzen dira	0 puntu

b) Erakunde eskatzaileak gizarte zerbitzuen arloan erakutsitako jarraipena, egonkortasuna eta ibilbidea: gehienez ere 5 puntu. Erakundeak lurraldean duen presentzia balioetsiko da.

10 urte baino gehiago:	5 puntu
3 eta 10 urte bitartean:	3 puntu
3 urtetik behera:	0 puntu

c) Arabako Lurralde Historikoan duen ezarpen maila: gehienez ere 5 puntu.

Gutxienez 2 jarduera egiten ditu Arabako landa eremuan	5 puntu
Jarduerarik bat egiten du Arabako landa eremuan	3 puntu
Ez du jarduerarik egiten Arabako landa eremuan	0 puntu

d) Boluntarioen partaidetza jarduketan garapenean. (Ez da zenbatzen zuzendaritzako kideen partaidetza): gehienez 10 puntu.

Gutxienez, 5 boluntario ditu, elkarrearen jarduerari laguntzeko	10 puntu
5 boluntario baino gutxiago ditu, elkarrearen jarduerari laguntzeko	5 puntu
Ez du laguntza emateko boluntariorik	0 puntu

e) Giza baliabideak nola egokitzen zaizkion herritarrek jendaurrean artatzeko moldeari (kontratutako langileak edota boluntarioak): gehienez ere 10 puntu.

Jendaurreko artapena emateko, gutxienez 15 orduko estaldura du astean	10 puntu
Jendaurreko artapena 15 ordu baino gutxiagokoa eta 10 ordu baino gehiagokoa da astean	5 puntu
Jendaurreko artapena 10 ordu edo hortik beherakoa da astean	0 puntu

f) Dirulaguntzaren justifikazioa, mantentze/langileentzako azken ekitaldi diruz lagunduan. Azkeneko ekitaldi diruz lagunduan aurkeztutako justifikazioa balioetsiko da, justifikazioaren ondoren emandako azken zenbatekoa kontuan hartuta: gehienez ere 10 puntu.

Azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako azken zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 90etik gorakoa bada, edo dirulaguntzarik jaso ez badu, edo bidezko arrazoiengatik ezin izan bada diruz lagundutako jarduera gauzatu eta azaroaren 30a baino lehen idatziz uko egin bazaio dirulaguntzari.	10 puntu
Baldin eta azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako amaierako zenbatekoa hasierako diru zenbatekoaren ehuneko 80tik ehuneko 89ra bitarteko tartean badago:	5 puntu
Baldin eta azkeneko ekitaldi diruz lagunduan emandako amaierako zenbatekoa hasierako zenbatekoaren ehuneko 80tik beherakoa bada	0 puntu

g) Genero berdintasuna ikusarazten laguntzen duten jarduerak: gehienez ere 10 puntu.

- Erakundearen estatutuetan jasotzen den emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- Erakundearen zuzendaritza batzordearen kideen ehuneko 40, gutxienez, emakumeak izatea.
- Berdintasun plana edo berdintasun hori lortzera bideratutako jarduera espezifikoak.

Gorago aipatutako 2 ekintza betetzen ditu gutxienez	10 puntu
Ekintza 1 betetzen du:	5 puntu
Ez du bat ere betetzen	0 puntu

**Bederatzigarrena. Dirulaguntza ukatzeko arrazoiak**

Dirulaguntza ukatzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea edo Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta beraren erakunde autonomiaduna den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) lehiaketa bidez emango dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak ez betetzea.

b) Eskatutako kontzeptuaren balorazioak gutxienez 51 puntu lortu ez izana, hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren oinarrien arabera.

c) Eskatutako kontzeptua eta laugarren oinarriaren lehenengo apartatuan ezarritako xedea bat ez etortzea.

d) Baztertutako jarduketa edo kontzeptua da, laugarren oinarriko hirugarren apartatuan ezarritakoaren arabera.

e) a.1 balioespen irizpide honen balioespena ez da iritsi gutxienez 15 puntura.

**Hamargarrena. Lehetasunen hurrenkeraren eta diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak**

1 lehetasun multzoa: aurreko ekitaldian finantzatutakoa mantentzea, diruz lagun daitezkeen lokal edo egoitza erakundearen jabetzekoa bada. Diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: 7.300 euro.

2 lehetasun multzoa: aurreko ekitaldian finantzatutakoa mantentzea, diruz lagun daitezkeen lokal edo egoitza administrazioak lagatzen badu eta ez badu eragiten hornidura gasturik, salbu eta telefonoarena. Diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: 5.300 euro.

3 lehetasun multzoa: aurreko ekitaldian finantzatutakoa mantentzea, baldin eta diruz lagun daitezkeen lokal edo egoitza alokairukoa edo lagatakoa bada, hornikuntza gastuak erakundearen kontura izanik. Diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: 7.300 euro.

4 lehetasun multzoa: aurreko ekitaldian finantzatutakoa mantentzea, baldin eta egoitza arestian aipatutako kasuetariko bakar batean ere ez badago. Diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: 4.900 euro.

5 lehetasun multzoa: aurreko ekitaldian finantzatutako erakundeetako langileak edo ezin izan zena diruz lagundu aurreko ekitaldian, aurrekontu krediturik ez egoteagatik. Gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: Azken ekitaldiko DLGA; gehienez, 16.361,00 euroko zenbateko diruz lagungarriekin.

6 lehetasun multzoa: mantentze lanetarako dirulaguntzarik sekula jaso ez duten erakundeek zuzendutako mantentzea. Diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko: 7.300 euro.

7 lehetasun multzoa: Aurreko ekitaldian dirulaguntzarik jaso ez edo 8.180,00 euro baino gutxiagoko dirulaguntza jaso duten erakundeetako langileak. Bi kasuetan, erakundeek dirulaguntza beharra edo aurreko ekitaldian jasotakoaren aldean zenbateko handiagoaren beharra arrazoitu beharko dute. Horretarako, eskaera ofizialean sartuta dagoen memoria teknikoaren 5/6 orria bete beharko dute. Lehetasun talde horretako aurrekontu diruz lagungarri gehienekoa finkatuko du 11. oinarriko a.2.2 puntuan lortutako puntuazioak, zeini kendu beharko baitzaio 5 lehetasun taldeko DLGA.

**Hamaikagarrena. Dirulaguntzen mugak eta diruz lagun daitezkeen gehieneko aurrekontuak**

A) Dirulaguntzen mugak kontzeptu bakoitzean:

a.1) Mantentzea:

– Lokalaren alokairuaren, komunitatearen eta zerga/tributuen gastuak:

- Alokairuan edo lagapenean hartutako lokalak dituzten erakundeentzat. Kostuaren ehuneko 50 gehienez eta 2.000 euro gehienez.

- Lokal propioak dituzten erakundeentzat. Kostuaren ehuneko 100 gehienez eta 2.000 euro gehienez.

– Hornigaiak: Ura, argindarra, gasa eta telefonoa/datuak. Kostuaren ehuneko 42,50 gehienez eta 1.700 euro gehienez.

– Lokalaren aseguru gastuak. 400 euro, gehienez.

– Diruz lagun daitezkeen bestelako gastuak, laugarren oinarriaren bigarren apartatuaren arabera (bulegoko material suntsikorra eta fotokopiak, garbiketako kanpo zerbitzuen gastuak eta garbiketako materiala, posta, lan eta ekonomia arloko aholkularitza, ekipoen mantentzea, lan arriskuak prebenitzeko plana, datuen babesa, kalitate planak, erakundearen aseguruak -erantzukizun zibila, istripuenak eta boluntarioenak-, federazioen kuota, federazioekin bilerak egiteko joan-etorrien gastuak eta konponketa txikiak).

- Gehienez 400 euro erakunde bakoitzeko.

- Zenbateko gehigarri aldakor bat; hain zuzen ere, GOFek erakundeari 2019ko jardueretarako soilik erakunde laguntzen deialdietako dirulaguntzak direla-eta egin dion ekarpen ekonomikoaren ehuneko 20. Gehienez, 2.500 euro.

a.2) Langileak:

a.2.1. Langile gastuak, 5 lehentasun multzoarenak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak alde zuzen egin dituen deialdietan dirulaguntzak jaso dituzten edo aurreko ekitaldian aurrekontu krediturik ez egoteagatik diruz lagundu ezin izan ziren elkarte edo fundazioetan kontratatutako langileentzako dirulaguntzak.

Azken ekitaldiko DLGAREN ehuneko 100 gehienez eta 16.361,00 euro gehienez.

a.2.2. Langile gastuak 7 lehentasun taldean: gehienez 8.180,00.

Diruz lagun daitezkeen gehieneko ezarpena honako irizpide zehatz hauen arabera egingo da: a) Beharra: gehienez 40 puntu. GOFeren helburuekin zerikusia duen jardueraren bolumena balioetsiko da.

– Behar justifikatua: 40 puntu.

– Behar ez justifikatua: 0 puntu.

b) Erakundeetako kideak:

Patronatuaren bazkide edo kide kopurua. Gehienez 20 puntu. Erakundeak bazkideturik edo fundazioaren patronatuan pertsona kopuru nabarmena izatea balioetsiko da.

100 bazkidetik gora (>10 fundazioetan)	20 puntu
50-99 bazkide (7-10 fundazioetan)	10 puntu
20-49 bazkide (4-6 fundazioetan)	5 puntu
20 bazkidetik behera (3 edo gutxiago fundazioetan)	0 puntu



c) Baliabide propioak edo beste erakunde batzuen bidez sor ditzaketenak langileen gastuak ordaintzeko. 30 puntura arte.

Eskutatuko langileentzako baliabideen ehuneko 50 baino gehiago jartzen du	30 puntu
Ehuneko 30 baino gehiago eta 50 bitarteko ekarpena egiten du	15 puntu
Ehuneko 10 eta 30 bitarteko ekarpena egiten du	5 puntu
Ehuneko 10etik beherako ekarpena egiten du	0 puntu

Eskuratutako puntuazioak diruz lagun daitezkeen gehienezko aurrekontua zehaztuko du, honako eskala honen arabera:

- 51 puntu baino gutxiago: ezin da diruz lagundu.
- 51 eta 59 puntu bitartean eta gehienez 5.453,00 euro.
- 60 eta 74 puntu bitartean eta gehienez 6.544,00 euro.
- 75 eta 90 puntu bitartean eta gehienez 8.180,00 euro.

B) Diruz lagun daitezkeen gehieneko aurrekontuak:

Diruz lagundu daitezkeen jarduketa bakoitzean ezarritako mugak zehaztuko du diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua.

Laguntzen eraginkortasuna bermatzearen, eta jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduera bakoitzak diruz lagundu daitezkeen gehieneko 250 euroko aurrekontua izan behar du gutxienez.

c) Diruz lagun daitezkeen gastuak lehentasun multzo bakoitzean.

<b>DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK</b>
1 lehentasun multzoa 1.1 Komunitatea, zergak, tributuak 1.2 Hornigaiak: ura, argindarra, gasa eta telefonoa/datuak 1.3 Lokalen aseguruak 1.4 Diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak, laugarren oinarriaren 2. apartatuaren arabera
2 lehentasun multzoa 2.2 Telefonoa/datuak 2.3 Lokalen aseguruak 2.4 Diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak, laugarren oinarriaren 2. apartatuaren arabera
3 lehentasun multzoa 3.1 Alokairuak, komunitatea, zergak eta tributuak 3.2 Hornigaiak: ura, argindarra, gasa eta telefonoa/datuak 3.3 Lokalen aseguruak 3.4 Diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak, laugarren oinarriaren 2. apartatuaren arabera
4 lehentasun multzoa 4-2 Telefonía mugikorra, horren titularrak erakundea dena. 4.4 Diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak, laugarren oinarriaren 2. apartatuaren arabera
5 lehentasun multzoa: 5.1. Langile gastuak
6 lehentasun multzoa: 6.1 Alokairuak, komunitatea, zergak eta tributuak 6.2 Hornigaiak: ura, argindarra, gasa eta telefonoa/datuak 6.3 Lokalen aseguruak 6.4 Diruz lagun daitezkeen gainerako gastuak, laugarren oinarriaren 2. apartatuaren arabera
7 lehentasun multzoa 7.1. Langile gastuak

BEZ Balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa diruz lagungarria izango da erakundeak zenbateko hori berreskuratzerik ez badu.

**Hamabigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Zortzigarren oinarriaren irizpideak aplikatuta lortzen diren puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzetarako gehieneko ehuneko lotuko zaio, ondoko taula honen arabera:

PUNTUAK	DIRULAGUNTZA GEHIENEZ
50 punturaino	Ehuneko 0
51 eta 55 puntu bitartean	Ehuneko 50
56 eta 60 puntu bitartean	Ehuneko 60
61 eta 65 puntu bitartean	Ehuneko 65
66 eta 70 puntu bitartean	Ehuneko 70
71 eta 75 puntu bitartean	Ehuneko 75
76 eta 80 puntu bitartean	Ehuneko 80
81 eta 85 puntu bitartean	Ehuneko 85
86 eta 90 puntu bitartean	Ehuneko 90
91 eta 95 puntu bitartean	Ehuneko 95
95 puntu baino gehiago	Ehuneko 100

Hamargarren eta hamaikagarren oinarria aplikatu eta gero diruz lagun daitezkeen gehieneko aurrekontuak lortuko direnez, aurrekontu horietan aplikatutako ehuneko horiek zehaztuko dute dirulaguntza zenbatekoa izango den.

Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen duen azken multzoari dagozkion esleipenak egiteko, heinean banatuko da eskaera dagoen geldikina, kalkulatu den hasierako dirulaguntzaren arabera. Hortaz, ez dira diruz lagungarriak izango aipatu den azken multzoaren ondorengo lehentasun multzoei lotutako jarduerak.

**Hamahirugarrena. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena**

13.1. Epe barruan eta dagokion eran aurkeztutako eskaerei dagokienez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatuko du ea eskaera horiek laguntza jasotzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituzten. Horrela ez bada, eskaera aurkeztu duenak hamar egun baliodun izango ditu eskatzen diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko du (eta horretarako ebazpena emango da alde zuzeneko aurretik), bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak txostenak eskaerak diezazkieke egoki deritzen erakundeei, eskatutako dirulaguntzei buruz zein eskaera egin duen erakundeari buruz; orobat, eskaera egin duen erakundeari espediente osatzeko eta emandako datuak egiaztatuzko beharrezko izan litezkeen datuak, agiriak edo argibideak ere eskaerazazkieke.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoa da prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa eta hark txosten teknikoa egingo du, eta bertan dirulaguntzaren xede diren jarduerak zenbateraino egokitzen zaizkien deialdiaren helburuei jasoko du.

13.2. Zuzendariordetza Teknikoak, Arloko Programen koordinatzaileak eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eskaerak balioesteko batzordea osatuko dute.

Arloko teknikari adituek egindako txostenak aztertu ondoren, eta behin kreditu erabilgarria zein den kontuan hartu eta gero, aipatutako batzordeak ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek dirulaguntza emango zaien erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa jaso beharko ditu, baita ukatzeko proposatzen diren eskaerak eta horretarako arrazoiak ere, eta, orobat, esleitu ez diren kasuak, dela atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo erantzun ez zaien eskaeretan gerora sortu den ezintasun materialarengatik.

13.3 Ez da entzunaldiko izapiderik egingo, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko ebazpena hartzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.4. Ebazpena behar bezala arrazoitu beharko da eta dirulaguntza ematea bidezkoa den ala ez argituko du. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak emango du ebazpena, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan. Horretarako, hiru hilabete izango ditu, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik aurrera. Ebazpen horrek, kontzeptu bakoitza dela eta, zein izango den diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa adieraziko du; ondoren, eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta bertan berorren aurka zer errekurtsio jar dezaketen adieraziko zaie.

Ebazpena hartzeko gehieneko epea igarotakoan ebazpen adierazirik hartu ez bada, dirulaguntzari ezezkua eman zaiola ulertuko da, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 25.1.a) artikuluan xedatutakoarekin. Horrek ez du ebazteko legezko betebeharretik salbuesten.

13.5. Deialdi honetako laguntzak jasotzeko ezarri diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar, berez eta besterik gabe, laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

13.6. Ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121 – 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenaren arabera.

13.7. Honako deialdi hau ebatzi eta gero, dirulaguntza jasotako erakundeek, salbuespenezko izaeraz, emakidaren erabakiari buruzko aldaketak proposatu ahal izango dituzte, diruz lagundutako jardueraren garapena aldarazten edo zailtzen duten inguruabarrak agertzen badira; nolahi ere, inguruabar horiek ezin dute ekarri emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

Horretarako, erakunde eskatzaileak idatziz arrazoitu beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrean helburuak aldatzeko edo desbideratzeko eskaera, aipatutako inguruabarrak gertatzen diren unean, betiere 2020ko azaroaren 30a baino lehen.

